

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2025 000002642

Espediente-zenbakia: 2025/IDA_ERA_0089**Xedea**

2025 urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuko artikulua idazteko eta argitaratzeko deialdi publikoaren oinarriak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: urtero, Bermeoko jaietako liburuan artikulua argitaratzen dira.

Bigarrena: 2015 urtean, lehenengo aldiz, Euskera Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Sailak lankidetzan, oinarriak finkatu eta deialdi publikoa egitea proposatu zuten.

Hirugarrena: Euskera Sailak, Berdintasun Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Sailak adostuta oinarriak gaurkotu egin dira.

Argudioak

Lehenengoa: oinarrietan, jaietako liburuko artikuluei buruzko zehaztasun guztiak adierazten dira.

Bigarrena: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikulua arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartu da, Tokiko Gobernu Batzarrek deialdi hau egiteko ahalmenaren delegazioa. Horrela izan arren, kasu zehatz honetan, premiatasunagatik, eskumen hori abokatzea proposatzen da alkateak zuzenean eramateko.

Erabakia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: 2025 urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuan artikulua idazteko eta argitaratzeko deialdia zabaltzea onartzeko Tokiko Gobernu Batzarrengan egindako delegazioa abokatzea, alkateak zuzenean eramateko.



BIGARRENA: 2025eko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuko artikulua idazteko eta argitaratzeko deialdi publikoa deialdia zabaltzea, uztailaren 1era arte.

HIRUGARRENA: Berrikuntza Sailari udaleko web orrian dagokion iragarkia argitaratzeko agindua ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Euskera, Berrikuntza eta Berdintasun sailei jakinaraztea.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu batzarrean eta Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E9001311BE00Q7V8Y2L1Q4A4

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 23/05/2025 10:26:36

EXPEDIENTE ::
2025IDA_ERA_0089

Fecha: 08/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

